

2015ean, Eusko Jaurlaritzak 2030erako Klima-Aldaketaren Euskakido Estrategia plazaratu zuen. Tresna horrek Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako planteamendu estrategiko orokorra ezagutarazten du. Urte bat lehenago, Unescok sustatuta, Japoniako Nagoya hirian Garapen Jasangarrirako Hezkuntzari buruzko Unescoren Munduko Biltzarra ospatu zen, non Euskal Herria ordezkaturik egon zen. Ekitaldi garrantzitsu horretan Iraunkortasunerako Hezkuntzaren oinarri nagusiak finkatu ziren. Zertxobait beranduago, 2018an, Eusko Jaurlaritzak 2030erako Euskadiko Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategia argitaratu zuen. Estrategia horren aurrekaria eta markoa izan ziren, hain zuzen, Unescoren Nagoyako batzarreko hausnarketa kolektibo eta zabal horren ondorioak, adostasunak eta itunak.

Aurrekoarekin batera, 2015ean Garapen Jasangarriari buruzko Goibileran adostu ziren 17 helburuak Jasangarritasunerako Hezkuntza euskal Estrategiak bere egiten ditu, eta artikulatzen ditu aurrekari moduan etorkizuneko lanerako Hezkuntza Sistemak. Merezki du helburu horietariko bi ekartzea gaurko topaketara: “13. Klimaren aldeko ekintza” deiturikoa, eta horrekin batera, “5. Genero berdintasuna”. Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategiari eskatzen zaio, beste aspektuen artean, hezkuntza sistema gauza izan dadin gizarte eragile bat eraikitzen klima aldaketaren arazoaren aurrean, eta hori lortu behar da genero ikuspuntua oinarritzat hartuta. Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategiak Eskola Agenda 2030 aldarrikatzen du tresna egoki gisa helburu horietarako, zeinean genero eta ingurumena uztartzen diren naturaltasun osoz.

Change the Change konferentzian, Iraunkortasunerako Hezkuntzak haren esparru berezkoa izan zuen, ezinbesteko plataforma moduan klima aldaketaren aurrean, eta halaber, konferentziak berak aprobetxatu zuen martxoaren 8a genero perspektibaren onurak azalertzeko berotze globalaren testuinguruan. Egun horretan, kalitatezko ideiak plazaratu ziren mahai inguruetan parte hartu zuten emakumeen ahotsetatik, baina han ginen guztiok bagenekien eguneroko bizitzan emakume askoren ahotsa isilarazten dela. Ez gara leloak, eta badakigu gizarteak etorkizuna izango duela emakumeen eskutik, edo ez du etorkizunik izango. Baina, astintzen eta aldarrikatzen ari diren esku onetan gaude, emakumezkoen eskuetan hain zuzen.

Beraz, planeta honek gizarte aldaketa sakona behar du etorkizunari bermeaz begiratzeko, eta denok dakigu, esperientziak erakutsi digulako, genero berdintasunik gabe oinarritzko baloreak (pobreziaren amaiera, gosearen desagertzea, gizartearen ongizatea, desberdintasunak gainditzea, ekosistemen iraunkortasuna kalitatez ziurtatzea, justizia, kalitatezko hezkuntza bera) kolokan egongo direla. Gazteak prestakuntza kritikoan ahaldundua, eta emakumeek berdintasunez erabakiak hartzeko ahaldundua beharrezkoak ditugu etorkizun abegitsu batean zehar ibil dadin gure gizarteak. Bi ardatz horien sendotasuna ezinbestekoa da Hezkuntza Sistemak gizarteak benetan lagun dezan aurrean zabaltzen den bide konplikatutik iraunkortasuna izateko.

Change the Change Konferentzian ospatu zen Jasangarritasun Hezkuntzari buruzko mahai ingurua eta solasaldia Aitor Zulueta jaunak zuzendu zituen trebetasunez. Aitor Zulueta Ingurumen Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendaria da, eta eskertuz haren parte hartzea topaketa honetan, hitza eman nahi diot gaurko ekitaldiari amaiera jar diezaion.

Aitor Zulueta jauna, mesedez.